



# Zientzilari Trafikoa

Joxerra Aizpurua\*



**E**rregai erradioaktiboen trafikoa azkenaldi honetako moda bihurtu zaigu. Merkatu beltzean lortzen den erregai hori bonba nuklearrak eraikitzeko edo zentral nuklearrak elikatzeko ote den jakitea zaila izango da. Dena den, European inon baino zentral nuklear gehiago dagoela eta erregai-erreserbak, hots, uranio-erreserbak, 150.000 tonakoak direla, (beraz eskas direla) eta egun gerra atomikoa urrun samar dagoela kontutan hartuz, erregai erradioaktiboen trafikoa fisiozko zentral nuklearrak dituela helburu iruditzen zait.

Plutonio-trafikoa Sobietar Batasuna izandakoan sortu dela ere esan digute berriemai-leek. Bertako zentral nuklearretan kaosa omen da jaun eta jabe eta, ondorioz, mafia desberdinak dira plutonioarekin edo teknologiarekin, oro har, trafikatzeko dutenak. Sobietar Batasunean garatutako teknologia eta hezitako zientzilariak joan den hamarkadan puntaren puntan izan zirela badakigu. Gaur egun, oster, bertako lantegiak, zentral nuklearrak, etab. zabortege teknologiko bihurtu dira neurri handi batean; izan ere, aipatu teknologia eta lantegiak mantentzeko ez omen dago pertsonal koalifikaturik. Non daude, bada, joan den hamarkadan hain puntakoak ziren zientzilariak?

Galdera honen erantzuna uste baino azkarrago aurkitu dut zenbait zientzi aldizkari irakurri ondoren, eta erantzuna kezka garria izan dela aitortu behar dut. Antza denez, emigratu egin omen dute zientzilariak. Zientzilari-emigrazioa normala da estatu espainolean bizi garenontzat. Gainera zientzilarientzat ohorea izaten da atzerriko unibertsitateetan ikastea. Baina, Sobietar Batasun ohian gertatu denak marka guztiak apurtu ditu. Nolabait esan, bertako ikerlari eta

zientzilariekin tonbala antolatu da, erosleak mendebaldeko unibertsitate eta ikerketazentruak izan direlarik. Ordaindutako prezioa, denda batek porrot egiten duenean bere produktuak likidatzen dituenaren parekoa izan da.

Suitzako CERNera egindako bisitan frogatzerik izan nuen arestian esandakoa. Gainera, bertan beste arazo bat detektatu nuen, hots, bi sosekin ekarritako ikerlariak puntakoak izanik, zertarako mantendu hain soldata handiak eta aurrekoen pareko maila zientifikoa edo txikiagoa duten bertako zientzilariak?

Aipatu arazoa, dena den, oso txikia da Sobietar Batasun ohian gertatzen ari denarekin alderatuz; hemen zientzilari-ihesaren eraginez garai bateko industria zabortege teknologiko bihurtzen ari baita, eta batzuetan oso zabortege arriskutsua gainera (zentral nuklearrak adibidez).

Egoera honi aurre egiteko mendebaldeko estatu aberatsak tratuan hasiak dira Sobietar Batasuna osatzen zuten estatuekin eta elkarriketak edo lortutako akordioak isilpean egin badira ere, hipoteka politiko eta ekonomiko larrian gaudela iruditzen zait. Beraz, unean uneko irtenbide hauek etorkizuneko gatazka-inbertsioak direla pentsatzen dut. Gainera, gaur egungo egoeran, irtenbide orokorra ere zaila ez eta ezinezkoa dela esango nuke, zientzia eta teknologiararen oinarriak aldatzen ez diren bitartean, hau da, zientzia eta teknologia garapenaren zerbitzura ez eta gizakiaren zerbitzura jartzen ez den bitartean. Ikusmolde-aldaketa honek ez du garapenaren kontra zertan egon behar, baina garapena teknokrazia edo produktibitate huts den bitartean bai.



\* ZETIAZ - Elhuyar